«Txanpaina, mesedez» da Oier Santosek kaleratu duen bigarren lana, nobela beltzetik gertu dagoen eleberria, nahiz eta Ereinek ez horrela sailkatu. Trama poliziakoa, atentatuak eta ertzain baten egunerokoa bere bikotekidearen kontakizun intimoarekin paraleloki doaz.

Xanpainaren lilurak eragindako bizimodu bikoitza

Ariane KAMIO | **DONOSTIA**

Oier Santos, eleberria eskuan, atzo Donostiako Udal Liburutegian egindako aurkezpenean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Ertzain baten egunerokoa. Atentatuak, talde ekologista bat, arriskuak. Bestetik, bere bikotekidea. Kontakizun intimoa, denbora desberdin batean idatzitakoa. Bi plano horiek oinarri hartuta egituratu du Oier Santosek (Errenteria, 1982) bere bigarren lana, "Txanpaina, mesedez" (Erein). «Asko atsegin dut bi planoetan idaztea. Emakume baten barne bizitza, batetik; bestetik, ertzainaren egunerokoa», azaldu zuen atzo idazleak, Donostian, liburua aurkezten ari zela. Oinarrian, bien arteko maitasun istorioa, baina ardatza, ertzainaren bizitza izango da, «nola bere bizitza eta ingurua arriskuan dituen».

«Xanpaina, mesedez» entzuten duen unetik geratuko da, bere aldetik, emakumearen bizitza baldintzatuta. «Bizimodu bikoitz bat darama. Ertzainaren bikotekidea da, baina beste bizimodu bat dauka», agertu zuen egileak. «Gizonezkoa edozer gauza emateko gai da maitasunak bultzata. Bikotekideak bera maite duela esaten duen arren, ordea, benetan liluratu zuen unea 'xanpaina, mesedez' entzun zueneko hura izan zen», gaineratu zuen.

Ekologista talde batek ere garrantzi handia izango du kontakizunean. Donostian kokatuta badago ere, Euskal Herriko beste zenbait tokitara ere mugitzen da eleberria, Pasaiako zentral termikora edo Garoñara, esaterako. Kaleratu berri duen lana «egungo gizartearen erakusle ere badela» iritzi dio Santosek. «Gizartearen deserosotasuna edo haserrea islatzen da jendearengan, hedabideengan...», esan zuen.

Bikotearen kontakizunak bi denbora desberdinetan kokatu ditu Santosek eta emakumearena, trama nagusiko ekintza amaitu ondoren kokatuta dagoela zehaztu zuen, azken lerroetarako amaiera sorpresibo bat utziz.

Ez da, ordea, nobela beltzean sailkatutako lana izan "Txanpaina, mesedez". «Ez nuke jakingo nobela beltza den esaten –azaldu zuen Iñaki Aldekoa editoreak–. Ez da katalogatu gure Uzta Gorria sailean, baina joan zitekeen ere».

La Feria del Libro de Iruñea, en la Plaza del Castillo, desde hoy hasta el día 7 de junio

GARA | **IRUÑEA**

La Feria del Libro de Iruñea regresa a la plaza del Castillo desde hoy y hasta el 7 de junio, diez días en los que 12 establecimientos que se establecerán en 125 metros de exposición lineal ofrecerán un descuento del 10% a los compradores.

En concreto, participan en esta feria las librerías Abarzuza, Acuario, Arista, Auzolan, Chundarata, Elkar Comedias, Elkar Larraona, Gómez, Katakrak, Nerea, Troa y Walden. Según han explicado sus organizadores, en esta edición la Feria del Libro contará con diferentes actividades, como presentaciones de libros, espacios para la lectura, o visitas de escolares navarros.

Programación

La Feria del Libro contará en el día de hoy, como el resto de días, con un espacio para la lectura de 10.30 a 12.00 horas, tras lo que tendrá lugar un acto de homenaje a la librería El Parnasillo, que cerró sus puertas el pasado año.

Las presentaciones de libros también arrancarán en la jornada de hoy con Taldea Lizarbe que presentará a las 18.00 horas "Comiendo sonrisas a solas". Por su parte, Oscar Salvoch ofrecerá detalles de su obra "Gayarre" el domingo a las 12.30 horas, e Ivan Giménez estará mañana con "Corralito foral". El periodista vasco Joxerra Senar estará presente en la feria con "CAN y aquí no ha pasado nada".

Además, el 1 de junio tres autores locales presentarán tres novelas policíacas y protagonizarán una tertulia. Se trata de Carlos Erice, autor de "La granja de Perla", Jon Arretxe, con "Morto Vivace", y Carlos Bassas, con "Siempre pagan los mismos". La jornada se cerrará a las 20.00 horas con un concierto de Alberto Rodríguez, que presentará "Canciones en la contraportada".

Otra de las actividades destacadas de la Feria del Libro de la capital navarra, según asegura Mertxe Zufía, de Auzolan y presidenta del Asociación Diego de Haro, tendrá lugar el 6 de junio, sábado, jornada en la que la Asociación de Bibliotecarios de Nafarroa celebrará su vigésimo aniversario con diferentes actos, lecturas y algún espacio audiovisual.

Arte grafikoen ikastaroak, Debako Arte Eskolan

Serigrafia eta litografia ikastaroak abiatuko dituzte ekainean Debako Arte Eskolan, hastapen mailakoak biak. Serigrafiari dagokionez, eskolak ekainaren 8tik 12ra, eta 22tik 26ra. Litografian, ekainaren 1etik 15era eta 8tik 12ra izango dira. Matrikula doakoa da bietan. Informazioa 943 19 18 04 telefonoan.

Arrate Egañak irabazi du Mikel Zarate haur literatura saria

Arrate Egañak idatzitako "Patioan" kontakizunak irabazi du 2015eko Mikel Zarate haur-literatura saria. Hala erabaki du Leire Bilbaok, Miren Agur Meabek eta Antxiñe Mendizabalek osatutako epaimahaiak. 19 lan lehiatu dira orotara eta Egañarena izan da irabazlea. 3.000 euroko saria jasoko du.

«Mozkorra parregarri» opera, ekainaren 5ean Donostian

"Mozkorra parregarri" operako pasarteen emanaldia eta libretoaren irakurraldia egingo da ekainaren 5ean Gipuzkoako Aldundian, arratsaldeko 19.00etan. Euskaraz idatzitako lehen opera izan zen Xabier Mari Munibe Peñafloridarena, 1764ko irailaren 11n Bergarako Udaletxean estreinatua.

Inauguración de la escultura «Aeolia´s Park» en Wiesbaden

La escultura "Aeolia´s Park", de la artista donostiarra Pilar Soberón, ha sido inaugurada en Wiesbaden, Alemania. Esta escultura de bronce es una de las dos obras que han sido adquiridas de forma permanente para la ciudad tras el Kunstsommer Festival celebrado en 2014.